



2012KO AZAROAREN 13KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko azaroaren hamahiruan, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Aze-ari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Maialen Aldasoro Aranburu eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman eta esaten du eguneko gai zerrendan sartu ez den gai bat daukela tratatzea proposatzen duena, Espainiako bandera udaletxean ez jartzeagatik tartejarritako kontentziosoaren gaia hain zuzen ere, eta eguneko gai zerrendan ez dagoenez, presazko izaeraz sartzeari eskatzen duela.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du gai hau noren ahalmeneko den jakin nahiko lukeela eta ez duela ikusten presazko izaeraz sartzeari justifikatzen denik eta aurka bozkaturiko dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du errekerimendua nahiko epearekin iritsita dagoela eta bestalde orain hilabete batzuk beraiei ezetza eman zitzaizela honelako egoera batean puntu bat sartzeari eskatu zutenean, eta guzti honengatik ezekoa bozkaturiko dutela.

Alkateak Serna zinegotziari erantzunez esaten du orduan gaia aurretik ingurumen batzordetik aztertu ahal izateko esan zela ezekoa.

Proposamena bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu) eta aurkako 5 botuz (EAJ, PSE-EE) gaia presazko izaeraz eguneko gai zerrendan sartzeari erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.

I.- ITURGAITZAGAKO ERROTONDA LANEN 2. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 2. obra-egiaztagiria luzatu du. Lanen 2. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA LAU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMOTAKO (124.572,28 €) da. Lan hauek GO-RAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.



Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 2. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Patxi Albisu zinegotzia aretora sartu egiten da berriro.

II.- LARREATEGIKO LURSAILA BESTERENTZEKO ESLEIPENAREN ALDAKETA.-

Josefa Iraola Mujika A.k, udalaren jabetzako 19 H.J.A. -Larreategi-ko 19.1 Burutze Unitatearen A.30.19.3 lursailaren besterentzea egiteko lehiaketaren esleitzailleak, esleipena hiru laguni egitea eskatu du, bera eta beste biri; ondorengo haueri zehazki: Josefa Iraola Mujika, N.A.N. zbkia. 72.509.229-G; Agustina Iraola Mujika, N.A.N. zbkia. 72.420.778-B; eta Jesus Iraola Mujika, N.A.N. zbkia. 72.417.902-X.

Udalak Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 19 H.J.A. -Larreategi-ko 19.1 Burutze Unitatearen A.30.19.3 lursailaren besterentzea Josefa Iraola Mujika Andereari esleitzea, EHUN ETA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BOST ZENTIMOtan (112.838,05 €), 2012ko urriaren 4an egindako ez-ohiko osoko bilkuran onartu zuen.

Honen aurrean eskaria ontzat ematea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du dokumentazioa euskaraz bakarrik bidali zaio-la eta horregatik aurka bozkatuko duela.

Udal Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (Bildu, EAJ) eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Josefa Iraola Mujika A.ren eskaria onartzea eta ondorioz 19 H.J.A. -Larreategi-ko 19.1 Burutze Unitatearen A.30.19.3 lursailaren besterentzea Josefa Iraola Mujika, N.A.N. zbkia. 72.509.229-G; Agustina Iraola Mujika, N.A.N. zbkia. 72.420.778-B; eta Jesus Iraola Mujikari, N.A.N. zbkia. 72.417.902-X esleitzea, EHUN ETA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BOST ZENTIMO (112.838,05 €)tan.
- 2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

III.- 2013RAKO ORDENANTZA FISKALAK.-

Ogasun batzordean hainbat bileretan landua izan ondoren, ordenantza fiskalen aldaketa proposamena aurkezten da bere onarpenerako. Aldaketa honetan 2011ko abuztutik 2012koa abuztura bitarteko urtearteko K.P.I.aren pareko igoera planteatzen da orokorrean eta salbuespenekin. Proposatzen diren aldaketa guzti hauen xehetasuna jasotzen duen dokumentua bere espedientean aurkitzen da.

Orokorrean urtearteko K.P.I.aren pareko igoeraz gain, proposamen honetan planteatzen diren beste aldaketa batzuen azalpena egiten da baita ere, ondorengo hauena hain zuzen: Ondasun Higiezin Zergan ohiko etxebizitza moduan erabiltzen ez diren etxebizi-



tzei %100eko gainkargua jartzea; ibilgailuetan hobariak, %50 auto hibridoentzat eta %75 elektrikoentzat; zaborretan %5eko igoera; Kiroldegian kirol zerbitzuetan BEZa %8tik %21-era igotzeak ekarri duen kostu igoeren aurrean bazkidetzak %6,5 igotzea eta ikastaroak %2,4, honekin kostu igoera erabat estaltzen ez bada ere; eta azkenik udal tasa eta zergen ordainketan laguntzak emateko ordenantzan baldintzen taula aldatu da jende gehiagora iristeko.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du ezetza emango diotela proposamen honi eta horretarako arrazoiak iaz emandakoen ildotik dihoaztela, batik bat aldaketa hauek proposatzeko erizpide garbirik ez delako finkatzen.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurka bozkatuko duela bidali zaion dokumentazioa euskaraz bakarrik dagoelako eta sakoneko arrazoi gisa esaten du ez dutela onartzen K.P.I.a baino igoera handiagorik.

Gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu) eta aurkako 5 botuz (EAJ, PSE-EE), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Bere espedientean jasotzen den dokumentazioaren areberako ordenantza fiskalen aldaketa, behin-behineko izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtutzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IV.- TAXIEN HIRI-TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2013 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdinak planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreren azterketa bidali dute baita ere.

Datorren urterako proposamenak zera aurrakusten du:

- 1.- Oraingo tarifak urtearteko 2011-2012 abuztutik abuztura bitarteko K.P.I.an igotzea, hau da %2,4 igotzea.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:

HIRI - TARIFA (2012)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiasaria	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Abiasaria	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua

3,3147	1,0377	19,8206	3,3147	1,65499	31,1515

* BEZ %10ean eguneratutako tarifa, Euskadiko Prezioen batzordeak 2012ko uztailearen 24ean hartutako Ebazpenean ezarritakoaren arabera, 2012ko abuztuaren 17ko 160 zbk.dun EHAAan argitaratua.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du dokumentazioa euskaraz bakarrik bidali zaiola eta horregatik aurka bozkatuko duela.

Udal Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (Bildu, EAJ) eta aurkako botu batez (PSE-EE), honako erabakiak hartzen ditu:

1.- 2013 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2013)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Abiasaria	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Abiasaria	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,3943	1,0626	20,2963	3,3943	1,6947	31,8992

* *Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da.*

** *Tarifa hau egunero 22:00etatik 7:00etara, eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan, halaber larunbatetan 07:00etatik 22:00etara eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan aplikatuko da.*

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

V.- ELKARKIDETZARI EKARPENA.-

"Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei" buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuak 2.artikuluaren 3. atalean esaten du 2012 urtean administrazioek ezingo dutela pentsio planetarako ekarpenik egin.

Honen aurrean udalak egiten dituen ekarpenak egiteari uztea proposatzen da. Dena den, eta udalek egiten dituen ekarpen hauen %90 izanik pentsioetarako dihoana eta beste %10a arrisku kontingentzietan dagokienez, egitetik uztea planteatzen dena ekarpenen %90arena da.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du proposamenaren alde bozkatuko dutela, oker ez baldin badago hori delako EUDELetik ere proposatzen dena.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du alde bozkatuko duela.



Gaia bozketan jarri eta osoko bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Elkarkidetzari, pentsioetarako den ekarpenen %90a ordaintzetik uztea erabakitzen du.

VI.- "EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA" DELA ETA, ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.-

Azaroaren 25a dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak "Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna" aitortutako eguna dela-eta, Lazkaoko udalak indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako: sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubi-deen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.

Belaunaldi gaztegoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.

Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso aktiboa izan behar dugu udalerriko gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.

Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonek pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikitzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.

Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rola eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

Lazkaoko Udala

- Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.

- Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere.
- Gonbit egiten die herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, adierazpen hau onartu egiten du.

VII.- UDALETXEKO FATXADAN PRESOK EUSKAL HERRIRATZEA ALDARRIKATUZ PANKARTA JARTZEAREN AURKAKO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiak idatzia bidali du Udal honetara. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoan Gobernuaren Ordezkaritzak eta Estatuaren abogatuak Lazkaoko Udalaren aurka tartejarritako errekurtsio kontentzioso-administratiboren berri ematen da. Errekurtsioa udaletxearen fatxadan presoak euskal herriratzea aldarrikatuz pankarta jartzearen udal jardunaren aurkakoa da eta, administrazio-espeditentea erreklamatzeko du eta interesatuak epatzea agintzen du.

Azaldutakoaren aurrean, Alkateak udala kontentzioso honetan bertaratzea proposatzen du.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du alde batetik ez zaiela egokia iruditzen udal akordio baten aurrean erabaki hori bertan behera uztea baina bestalde erabaki hori hartu zenean esan zuten urte askotan jarraitutako ohiturarekin hautsi egiten zela udaletxean pankarta jartzean. Eta guzti hori kontutan izanda abastenu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du pankarta jartzearen aurka zeudela erabakia hartu zenean eta beraz kontentzioso ondo ikusten dutela eta beraz proposamenaren aurka dagoela.

Guzti honen aurrean, proposamena bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko sei botu (Bildu), aurkako botu 1 (PSE-EE) eta 4 abstentzioz (EAJ), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegira eskatutako espeditentearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
- 2.- Espeditentean interesatu direnak enplazatzea, 9 eguneko epean errekurtsioan demandatu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzea eta udal defentsa egin dezan Egia Kolektiboko Mercedes Zulaica Galdos abokatua izendatzea.

VIII.- ESPAINIAKO BANDERA EZ JARTZEAGATIK KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-



Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegiak idatzia bidali du Udal honetara. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoan Gobernuaren Ordezkaritzak eta Estatuaren abogatuak Lazkaoko Udalaren aurka tartejarritako errekurtsio kontentzioso-administrati-boaren berri ematen da. Errekurtsioa udaletxean Espainiako bandera ez jartzeagatik tarte-jartzen da eta administrazio-espeditentea erreklamatzeko du eta interesatuak epatzea agin-tzen du.

Azaldutakoaren aurrean, Alkateak udala kontentzioso honetan bertaratzea propo-satzen du.

Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du gai hau tratatzeko forma ez zaiela egokia irudi-tzen eta foroa ere hau den ez dutela garbi ikusten. Gehitzen du hala ere proposamenaren aldeko botua emango dutela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du gaia aztertzeko denborarik ez duela izan bai-na PSOEk behin ere ez diola eskatu Espainiako bandera udaletxean jartzeko, ez diotelako gauza hauei horrelako garrantzirik ematen. Eta gehitzen du abestenitu egingo dela.

Guzti honen aurrean, proposamena bozketan jartzen da eta osoko bilkurak, aldeko 10 botu (Bildu, EAJ), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), honako akor-dioak hartzen ditu:

- 1.- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zk.ko Epaitegira eskatutako espeditentearen egiaztatutako kopia foliatua bidaltzea.
- 2.- Espeditentean interesatu direnak enplazatzea, 9 eguneko epean errekurtsioan deman-datu bezala bertaratu ahal izateko.
- 3.- Udala prozedimentuan bertaratzea eta udal defentsa egin dezan Egia Kolektiboko Mercedes Zulaica Galdos abokatua izendatzea.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak eta hogeita hemeretzi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

